

# Opalak

GIZA  
DORREAK

Dantza tradizionalaren  
nazioarteko jaialdia

2018ko maiatzak 26 eta 27  
IRUÑEA-EIBAR



ezpalak, dantza tradizionalaren  
nazioarteko  
jaialdia

*Argitaratzaileak:*

Duguna dantza taldea

Kezka dantza taldea - Eibarko Klub Deportiboa


*Diseinua eta inprimategia:*

Gertu Komunikazio Bide, S.L., Oñati.

CC BY-SA Ezpalak 2018

<http://dantzan.eus/kidea/ezpalak>

Giza-dorreak, 2018ko ezpalak



*Erdi Aroko giza-dorre baten  
grabatua, Venezian.*



Giza-dorrea edo giza-gaztelua normalenean dantzari batzuek beste batzuen bizkar gainetara igo eta gutxienez hiru mailako altuera lortzen duten figura horiei esan ohi zaie. Elementu ikusgarriak suertatzen dira lur azalaren horizontaltasunean garatzen diren dantzen kontrastean.

Aurtengo edizioak giza-dorreak eurak bakarrik nahiz dantza-protokoloetan txertatuak eskainiko dizkigu. Hirugarren une bat giza-dorreok, euren handitasunaren handitasunaz, entitate propioa lortu eta ikuskizun bihurtu direnekoa izango genuke: *castellersak*. Tamalez, horrelako egitura bat eraiki ahal izateko behar litzatekeen partaide kopuruak gure jaialdiaren gaitasuna gailendu egiten du. Halere, Kataluniatik Tarragonako *moixiganga* hurbilarazi dugu, moixiganga deituriko figura jotzen delako *castellers-en* jatorri edo aurrekaria.

Giza-dorreak Valentzia aldean sortu ahal izan ziren *-ball de valencians* ere izendatu izan dituzte- eta Ebro ibaian gora ikaragarri zabaldu omen ziren ondoren Euskal Herriraino iritsi ahal izateko: Nafarroako erriberan, Arabako Kuartangan, Trebiño inguruan edo Gipuzkoako Andoaingo axeri-dantzaren barruan ikus genitzakeenak, esaterako.

## Duguna dantza taldea – Kezka dantza taldea



# Ezpalak, dantza tradizionalaren nazioarteko jaialdia

2018ko maiatzaren 26an eta 27an Iruñean eta Eibarren

## Iruñea. **Maiatzak 26, larunbata**

12:15ean Kalejira alde zaharreko karrketan barna.

12:30ean Ezpalak jaialdia Burgoen Plazan:

- Duguna dantza taldea – Iruñea, Nafarroa.....6
- Berantevillako herritarrak – Berantevilla, Araba.....7
- Tausteko Dancea – Tauste, Zaragoza ..... 10
- Tarragonako Moixiganga – Tarragona, Katalunia.....11
- Cabanillaseko Paloteadoa – Cabanillas, Nafarroa.....12



## Eibar. **Maiatzak 27, igandea** (53. Euskal Jaia)

12:00etan Kalejira Urkizutik Untzaga Plazara.

12:30ean Ezpalak jaialdia Untzaga Plazan:

- Kezka dantza taldea – Eibar, Gipuzkoa ..... 14
- Berantevillako herritarrak – Berantevilla, Araba ..... 7
- Tausteko Dancea – Tauste, Zaragoza ..... 10
- Tarragonako Moixiganga – Tarragona, Katalunia ..... 11
- Ortzadar Euskal Folklore Elkartea – Iruñea, Nafarroa ..... 13

17:00etan erromeria Patxi eta Konpania taldearekin.



zpalak, dantza tradizionalaren  
nazioarteko  
jaialdia

# Duguna dantza taldea

## Iruñea (Nafarroa)

**D**uguna dantza taldea 1949. urtean sortu zen, eta Dorduz geroztik, dantzen bidez, Iruñeko ospakizun nagusietan parte hartzen du. Hain zuzen, bertako dantza-ospakizunak sendotu eta bultzatzea du xede. Bide horretan azpimarratzekoak dira San Fermin Aldapakoaren jaietarako sortutako ezpata-dantza, San Blas eta San Juan bezpera egunetako soka-dantzak, nahiz Iruñeko biztanleak dantzara bideratzeko beste zenbait kale-ekimen.

Iruindarrek San Fermin jaietan nahiz beste egun berezi batzuetan ematen dituzten trokeo-dantzak ekariko dituzte gurera, eta "Muga gainetik" piezaren erit-mora halako ekitaldiak bukatzeko, ohikoa den giza-dorrea eraikiko dute.



# Berantevillako herritarrak

## Berantevilla (Araba)

**B**erantevilla Arabako hego-mendebaldean kokatzen den udalerrri bat da. Euskaraz Beranturi gisa ere aipatu izan da. Berantevilla guneak eta beste txikiago batzuek osatzen dute. Guztira 440 biztanletik gora bizi dira.

Berantevillan Ama Birjinaren omenezko jaiak iraileko lehen asteburuan burutzen dira gaur, eta bazkari-garaian gazteek giza-gaztelu edo giza-dorreak erakitzen dituzte, behin eta berriro, oso distantzia txiki-kira batetik hurrengora arte. Dorreen gailurretik gazte batek hainbat agur oihukatzen du, eta etxe baikoitzeko bizilagun eta gonbidatuen izenak ere goratzen ditu. Biztanleek zurrakapotea eta jateko zer-bait ematen dute, eta diru kopuru bat jaiak ordaintzen laguntzeko. Ez da ikertu noiz edo zer dela eta jaio ote zen giza-gazteluen tradizio hau.



zpalak, dantza tradizionalaren  
nazioarteko  
jaialdia



Tausteko dancea, Torre de Caballos, 1915. Argazkia: Aurelio Grasa





Moixiganga, Festa Major del Poble Espanyol, Sitges 1930.  
Argazkia: Carlos Perez de Rozas



zpalak, dantza tradizionalaren  
nazioarteko  
jaialdia

# Tausteko Dancea

## Tauste (Zaragoza)

Tauste herriak 7000 biztanle pasatxo ditu. Herriaren mendebaldeak Nafarroako Bardeekin jotzen du. Tausteko *dance* osoa hamasei piezak osatzen dute, tartean, lau giza-dorreak: cucuño, pulso (altuena eta zailena), caballos eta San Miguel. Gaur egun apirileko jaietan egiten da Dancea. Hamabi gizonetzko ematen dituzte dantza guztiak, eta alboan izaten dituzte *mayoral* eta *rabadán*-aren irudiak. Mayoral dantzaren zuzendaria da, dantza-maisuaren antzeko figura bat. Rabadana, 5 eta 12 urte bitarteko ume bat. Danzanteei bi gaita edo dultzainak eta danboril batek laguntzen diete, eta Nafarroako mugatik hain hurbil izateak piezen doinuak Lizarrako gaiteroek jotzea ekarri du XIX. mendetik hona.



# Tarragonako Moixiganga

## Tarragona (Katalunia)

zpalak, dantza tradizionalaren  
nazioarteko  
jaialdia

**M**oixiganga Valentzia, Katalunia eta Aragoi aldean egiten diren giza-dorreen multzo edo seriei ematen zaien izena da. Badirudi paganoak izan zitezkeela hasieran, baina poliki-poliki manifestaldi erlijiosoetan txertatzen joan ziren. Agiririk zaharrenak XV. mendean dokumentatzen omen ditu Tarragonako moixigangak XVIII. mendean omen du bere jatorria eta XIX.ean oso dokumentatua dago. Gero desagertu egin zen 2000. urteko Santa Tekla-ren jaietarako berreskuratu zen arte. Gaila talde batek laguntzen du musika aldetik. Jantzia eta batez ere loradun kapela edo barreta Kataluniako luzituenetako bat da.



zpalak, dantza tradizionalaren  
nazioarteko  
jaialdia

# Cabanillaseko Paloteadoa

## Cabanillas (Nafarroa)

Cabanillas Tuterako merindadeko 1300 biztanle dituen herri bat da. Inguru hartako beste herri askotan bezalaxe, antzina egiten zen *paloteadoa* -1865, 1867 eta 1872ko erreferentziak behintzat gorde dira- berreskuratu eta herriko jai nagusi den San Roke egunean, abuztuaren 16an, ematen da. Generoak bereiztu gabe, dantzariz bakarrik osatutako segizioa da Cabanillasekoa.

Paloteadoa antzezpena, herriko gertakizunen aipamen eta kritika, eta dantza biltzen dituen errituala da. Kalejira batekin hasten da, eta zinta-, arku-, makila- eta kaskaineta-dantza eta jota bat aurkezten ditu. Amaieran giza-dorre bat eraikitzen da, eta gailurretik ume batek Cabanillas eta San Roke goratzen ditu. Dantzarako doinuak bi gaitak eta danborrak jotzen dituzte.



# Ortzadar Euskal Folklore Elkarteak

## Iruñea (Nafarroa)

ezpalak, dantza tradizionalaren  
nazioarteko  
jaialdia

Ortzadar Elkarteak 1974. urtean sortu zen Iruñeko hainbat dantza-taldetako zenbait dantzari eta musikari bilduta. Hasiera-hasieratik Euskal Herriko eta batez ere Nafarroako kultura, musika, kantu eta dantza tradizionalaren ikerketa, berreskurapena eta hedapena izan ditu helburu nagusitzat, hala landa-lan ugariren bitartez, nola jardunaldi, ikastaro eta sorkuntza-ikuskitzuzen bat baino gehiago bitarteko direla. Adibide gisa, urtero antolatzen dituen Folklore eta Kultura Tradizionalaren jardunaldiak XXXII. ediziora iritsi ziren 2017an.

Ezpalak jaialdira ikerketa lan horren ondoren batekin dator. Ortzadarrek, beste batzuen artean, Nafarroako Erriberako zenbait paloteado berreskuratu eta berreskuratzen lagundu du, eta "Erribera" izendatu duen emanaldia eskainiko digu.



Ezpalak, dantza tradizionalaren  
nazioarteko  
jaialdia

# Kezka dantza taldea

## Eibar (Gipuzkoa)

**E**ibarko Klub Deportiboaren barruan sortu zen Kezka dantza taldea 1958. urtean. Eibarko dantza ekitaldiak sendotu eta bultzatzeko lanean dihardu orduetik. Azken urteetan Kezkari sor zaizkio, besteak beste, San Juan eguneko soka-dantza, Arrate egunerako dantza-protokoloa, aratosteetako koko-eskea eta koko-dantzak edota 12garren ediziora iritsi den Ezpalak jaialdi hau berau, eibartarren bultzada eta babesa jasotzen duena urterik urte.

Eibartarrek Andoaingo axeri-dantza plazaratuko dute aurtengoan. 70. hamarkadan Andoainen bertan egin dako berreskuratze lanaren ostean osasuntsu diraute Andoianen dantza-joko dibertigarri hauek. Kezka dantzariak axeri-dantza osatzen duten dantza sortako zati bat eskainiko digute eta bertan egin ohi den giza-dorrea eraikitzen ahaleginduko dira jaialdia osatuz.



# Ezpalak bereko ezpalak

ezpalak, dantza tradizionalaren  
nazioarteko  
jaialdia

**E**zpalak jaialdia gai baten inguruan egituratzen da urtero. Helburua Europako dantza tradizionalaren esparruan gorde den fondo komuna erakustea da. Urte hauetan Ingalaterra, Flandria, Frantzia, Portugal, Norvegia, Turkia, Okzitania, Proventza, Katalunia, Valentzia, Gaztela, Galizia, Kanariar irlak, Eskozia, Italia, Transilvania, Asturias, Aragoi, Kantabria eta Euskal Herriko dantzak ikusteko aukera eskaini du jaialdiak.

- 2006: Ezpata-dantzak
- 2007: Makila-dantzak
- 2008: Arku-dantzak
- 2009: Karaktere-dantzak
- 2010: Dantza-jauziak
- 2011: Bikoteko dantza soltea
- 2012: Zinta-dantzak
- 2013: Sorgin-dantzak
- 2014: Danbolinteroak
- 2015: Soka-dantzak
- 2016: Ezpata-dantzak
- 2017: Zaldikoak
- 2018: Giza-dorreak



# Czpalak

GIZA  
DORREAK

Dantza tradizionalaren  
nazioarteko jaialdia

2018ko maiatzak 26 eta 27  
IRUÑEA-EIBAR



ANTOLATZAILEAK:



EIBARNO KLUB DEPORTIBOA  
KEZKA DANTZA TALDEA



LAGUNTZAILEAK:



Ayuntamiento de  
Pamplona  
Iruñeko Udala



Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Diputación Foral  
de Gipuzkoa



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA IRUDUNTZA  
POLITIKA GARA  
DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA